

Iranen aurkako erasoaren ondorioak Hego Euskal Herrian

| 10 neurri langile klasearen
pobretze prozesuari
aurre egiteko

AZTERKETA BULEGOA

2026ko iraila

AURKIBIDEA

1. Sarrera	3
2. KPI berriro ere gorantz	3
3. Erregaien prezioaren igoera inflazioaren arrazoia	4
4. Interes-tasen bigarren igoera.....	5
5. Euriborraren igoerak hipotekak garestitu ditu	5
6. Enpresa mozkinak eta marjinak maximoetan	7
7. ELAren proposamenak.....	7

1. Sarrera

Israelek eta Ameriketako Estatu Batuek Iranen aurka eragindako gatazkak lurraldea sakonki gainditu du eta Hego Euskal Herrian ere ondorioak izaten ari da. Eragin zuzenenetako bat kostu energetikoa izan da. Petrolioaren eta gasaren hornidurari buruzko ziurgabetasunak eta garraio-bideak aldatzeko arriskuak energia-prezioen igoera handia eragin dute nazioartean.

Bilakaera hori langile klaseak ordaintzen dituen prezioetara lekualdatzen ari da. Hainbat hilabete-tako moderazioaren ondoren, inflazioak gora egin du berriro ere, eta erregaien garestitzea presio gehigarria egiten ari da erosketa saskian. Igoera horretako parte bat kanpoko faktoreei erantzuten badiete ere, enpresek aukera aprobeztatu dute prezioak igotzeko eta marjinak handitzeko ere.

Aldi berean, inflazioaren gorakadak Europako Banku Zentralaren moneta politika baldintzatzen ari da, dagoeneko bi aldiz igo ditu interes tipoak. Egoera horrek Euriborrean ere du eragina, hipotekak berriro garestituz, tasa aldakorrek hipotekak dituzten pertsonetan eta kontratatutako hipoteka berrietan.

2. KPI berriro ere gorantz


KPIren urteko inflazioa %4,3ra igo da abuztuan, INEk argitaratutako adierazlearen arabera, horrek esan nahi du zazpi hamarren igo dela tasa aurreko hilaren aldean. Inflazioaren gorakada hau ez zen ikusten 2023ko otsailetik.

Inflazioaren bilakaerak lotura estua du produktu energetikoen bilakaerarekin. INEk berak adierazi du abuztuan ibilgailu pertsonalentzako erregaiek eta lubrifikatzaileek nabarmen eragin dute prezioen igoeran; izan ere, aurten prezioek gora egin dute, eta 2025eko abuztuan, berriz, behera. Elikagaiek eta alkoholik gabeko edariekin ere eragina izan dute, neurri txikiagoan bada ere, prezioak urtebete lehenago baino gutxiago jaitsi baitziren. Gainera, gogora dezagun azken bost urteetan elikagaien igoera metatua %36tik gorakoa izan dela.

Azpiko inflazioa %2tik gora jarraitzen du, abuztuan urteko tasa hamarren bat jaitsi da, %2,9ra arte. Inflazio orokorraren eta azpikoaren arteko alde hori nabarmena da, egungo gorakadaren zati handi bat energia osagaiari lotuta dagoela berresten du. Hala ere, energiaren garestitzeari eusten bazaio, gainerako ondasun eta zerbitzuetara lekualda daiteke, garraio, ekoizpen eta banaketa kostuak handituz.

Beraz, abuztuko gorakada alerta seinalea da. Produktu energetiko batzuen kostua handitzeaz gain, igoerak kontsumoaren beste osagai batzuetan eragina izateko arriskua dago, baita soldaten eros- teko ahalmena ere gehiago murrizteko ere.

KPI orokorraren bilakaera eta azpiko inflazioa (%)



Iturria: EIN

3. Erregaien prezioaren igoera inflazioaren arrazoia

Erregaien igoera da inflazioaren gorakada azaltzen duen elementu nagusietako bat. Asia mendebaldeko gerrak eta energia-hornidurari buruzko ziurgabetasunak petrolioaren nazioarteko kotizazioak handitzea eragin dute. Brent upelak 100 dolarrak gainditu ditu jada, azken asteetan gorakada handiak izan ondoren. Gainera, analistek diote prezioa 120 dolarra igo daitekeela Ormuzeko itsasarteko erasoek jarraitzen badute. Hala ere, jarraian ikusiko dugun bezala, beharrezkoa da enpresak prezioen igoeran duten erantzunkizuna aipatzea, egungo egoera eta duten izaera oligopolistikoa aprobetxatzen ari baitira.

HEHn, bilakaera hori gasolina zerbitzuguneen prezioetara aldatzen ari da pixkanaka. Irailaren erdialdean, 95eko gasolina litroko 1,97 euro ingurura igo da, martxoan erregistratutako urteko maximoaren gainetik; diesela, berriz, litroko 1,93 euro ingurukoa. Udaren hasierari dagokionez, gasolinak %30 inguruko hazkundera izan du.

Espainiako Gobernuak energia-krisiaren ondorioei aurre egiteko hartutako neurri fiskalek arindu egin zuten erregaien bilakaera. Martxotik ekainaren amaiera arte, erregaiei aplikatutako BEZa %21etik %10era murriztu zen aldi baterako. Hala ere, uztailaren 1etik BEZa %21era itzuli zen, erregaien prezioak igotzeko fase berri batekin batera.

4. Interes-tasen bigarren igoera

Inflazioaren gorakada Europako Banku Zentralaren moneta-politikan ere ondorioak izaten ari da. Inflazioari aurre egiteko interes-tasen igoerak markatutako hainbat urteren ondoren, EBZk tasak murrizteko bideari ekin zion 2024aren hasieran. Gordailatzeko erraztasunaren interes-tasa %2,00ra iritsi zen 2025eko ekainean, eta urtebete inguru iraun zuen maila horretan.

Hala ere, agertokia aldatu egin zen 2026ko ekainean. Energiaren garestitzeak eta gerrak eragindako inflazio-presioen gorakadaren aurrean, EBZk ekainaren 11n hiru tasa ofizialak 25 puntu igotzea erabaki zuen. Horrela, tasa %2,00tik %2,25era igo zen. Erabakiak Europako Banku Zentralaren tasen lehen igoera ekarri zuen 2023tik.

EBZk berak justifikatu zuen erabakia, esanez gerra presio inflazionistak sortzen ari zela eta euroguterako inflazio aurreikuspenak handitzen ari zirela. 2026rako, Europako Banku Zentralak %3ra igo zuen batez besteko inflazioaren aurreikuspena, epe ertainerako %2ko helburuaren aldean. Egoera horren aurrean, Lagardek gidatzen duen organismoak igoera berri bat burutu du, tasa %2,5ean kokatuz. Hori gutxi balitz, merkatuak igoera berriak iragarri ditu datozen hilabeteetan (EBZ urrian eta abenduan bilduko da berriro), eta aditu batzuen arabera, tasak %3,5era irits daiteke datorren udan.

Arazoa da moneta-politika murriztaileagoak ez duela eragin argirik inflazioaren jaitsieran. Europako Banku Zentralak tesi hori hartzen jarraitzen du, aurreko inflazio etapetan emaitzarik eman ez diona. Hala ere, Europako Banku Zentralak eskariaren eragiten nahian jarraitzen du, diruaren prezioa garestituz, aurreko inflazio-aldietan emaitzarik eman ez dion tesia jarraituz.


Bestalde, tasen gorakadak kreditua garestitzen du, eta, beraz, baita hipotekak, kontsumorako maileguak eta enpresen finantzaketa ere. Etxekoen unitateak dagoeneko elikaduraren, energiaren eta garraioaren kostua handitzen ari diren testuinguru batean, finantzaketaren garestitzeak presio gehigarria dakar errenta erabilgarriaren gainean.

5. Euriborraren igoerak hipotekak garestitu ditu

Bilakaera hori Euriborrean ere islatzen ari da. Inflazio itxaropenen gorakadak eta tasen igoera berriak izateko aukerak Euriborraren hazkunde progresiboa eragin dute azken hilabeteetan.

Irailaren hasieran, 12 hilabeterako Euriborra %3tik gorakoa zen; irailaren 17an % 3,345koa zen, eta abuztuan, berriz, %2,952koa. Duela urtebete, %2,17 ingurukoa zen, hau da, ehuneko puntu bat baino gehiago dago gaur egun.

Grafikoa. Euriborraren bilakaera 12 hilabetera (%).



Iturria: EMMI

Bilakaera horrek zuzeneko eragina du tasa aldakorrek hipotekak dituzten pertsonengan. Maileguen berrikuspenak egin ahala, Euriborraren igoerak hileko kuoten igoera ekar dezake, 80-100 euroko garestizea, etxeko en unitateen errenta erabilgarria murriztuz. Etxebizitza bat erosi nahi duten eta hura finantzatu ahal izateko hipoteka behar duten pertsonen ere eragiten die.

Azken batean, energiaren garestitzea bizi-baldintzei zuzenean eragiten dien efektu-kate bat sortzen ari da: lehenik, erregaien eta beste produktu energetiko batzuen prezioa handituz; gero, gainerako ondasun eta zerbitzuetara eramanez; eta, azkenik, kreditua eskuratzea garestitzen duen diru-politika murriztaileago baten bidez. Soldatak prezioen erritmo berean aldatzen ari ez diren testuinguru batean, dinamika horiek presio berri bat eragiten dute langile-klasearen erosteko ahalmenaren gainean.

6. Enpresa mozkinak eta marjinak maximoetan

Prezio energetikoen gorakada, gainera, enpresa-mozkin handien testuinguruan gertatu da. Ibex 35en konpainiek 39.390 milioi euroko irabaziekin itxi zuten 2026ko lehen sei hilekoa, hau da, %20 eko hazkundearekin aurreko urteko aldi berarekin alderatuta, orduan 32.644 milioi euroa izan baitzen. Horien artean daude Repsol eta Endesa enpresa energetikoak, lehenak bere mozkinak hirukoiztu egin ditu eta Endesak %42 gehiago irabazi du.

Espainiako Enpresa Marjinen Behatokiaren (OME gazteleraz) azken datuek enpresen osasun ona berresten dute: ustiapeneko soberakin gordina (soldatak eta beste gastu batzuk ordaindu ondoren enpresentzat geratzen den diru-sarreraren zatia) 96.962 milioi iritsi zen, hau da, maximo historikoa. Enpresa-marjinak (salmenten gaineko marjina edo errentagarritasun operatiboa) ere maximoetan daude 2026ko bigarren hiruhilekoan (%13,8), eta horrek esan nahi du pandemiaren ondoren gertatutako errentagarritasunaren gorakada kontsolidatu egin dela.

Lehen esan dugun bezala, OMEren azken argitalpenak berretsi egiten du aurretik adierazi duguna: petrolioaren fintzeko enpresek egoera aprobetxatu dute marjinak handitzeko. Salmenten gaineko marjina %41,5ekoa izan zen, iazko hiruhileko berean % 14,2koa; erregaien handizkako merkataritzak, berriz, %34tik gorako marjinak izan zituen. Horrek agerian uzten du energiaren garestitzea ez dela soilik kostuen igoeraren ondorio, baizik eta baita enpresa jakin batzuek kostu horiek prezioetara eramateko duten gaitasunaren ondorio ere, errentagarritasun-maila altuak mantenduz.

Esan bezala, arriskua da dinamika hori gainerako sektoreetara zabaltzea. Energiaren garestitzeak jarraitzen badu, beste enpresa batzuk beren marjinak igotzen saia daitezke prezioen igoera berrien bidez, inflazioan bigarren errondako ondorioak sortuz. Ildo horretan, aurreko inflazioaldian, 2022an eta 2023an, merkataritza gehienak nabarmen igo zituzten salmenta prezioak, bere irabazi-marjina mantentzeko kostuen igoera salmenta prezioetara eramateko beharra argudiatuz. Hala ere, marjina horiek nabarmen igo zituzten: salmenten gaineko %2,6 izatetik, batez beste %3,5 izatera igaro ziren. Horrek agerian uzten du ez zela kostuen translazio soil bat izan, baizik eta koiuntura aprobetxatu zutela mozkinak handitzeko.

7. ELAren proposamenak

Nazioarteko egoera ezberdinek erakusten dute gure herrialdeak duen zaurgarritasuna. Pandemia, Ukrainiako gerra, Trumpen muga-zergak edo Iranen aurkako erasoak dira horren adibide argia. Horregatik, urgentea da produkzio eta mugikortasun ereduak aldatzea eredu ekonomikoarekin batera. Neoliberalismo globalizatuarekiko dependentzia honek, lurraldean autozentratutako eredu ekonomiko gizatiar baten garrantzia indartzen du.

ELAk aurreko txostenetan sistema sozioekonomiko eta industrialaren eraldaketa sakona bultzatzeko proposamenak garatu ditu. Ikuspegi ekosozialetik landu diren txosten horiek hainbat arlo jaso dituzte, hala nola, lan harremanen esparrua, fiskalitatea, etxebizitza, energia edo industria. Hori horrela bada ere, egungo egoeraren aurrean, beharrezkoa ikusten dugu prezioen igoerari modu eraginkorrean erantzuteko berehalako neurriak ezartzea.

1. Soldaten erosteko ahalmena bermatzea

Inflazioak gora egin duen testuinguru honetan, funtsezkoa da soldata-igoerak KPIren gainetik bermatzea. ELAk ez du sinatuko gutxieneko erreferentzia horretatik beherako hitzarmenik.

2. Hitzarmenetan 1.600 euroko gutxieneko soldata ezartzea

ELAk hilean 1.600 euroko soldata-zorua eskatzea planteatzen du, negoziatzen diren hitzarmen kolektibo guztietan (enpresakoak zein sektorialak).

3. 1.500 euroko LGS propioa

ELAk 1.500 euroko gutxieneko soldata aldarrikatzen jarraitzen du, eta hori bi bidetatik lor daiteke: lanbide arteko akordio batekin edo Langileen Estatutua aldatuta, LGS Hego Euskal Herrian erabaki ahal izateko. Prezioen igoerarekin, edo alokairuarekin eta etxebizitzarekin prezio altuekin, oso zaila da bizitza duina izatea 1.500 eurotik behera.

4. Erregaien eta produktu energetikoen gaineko prezioen kontrola

Espainiako Gobernuak hobari fiskalak ezarri zituen prezioen igoerari aurre egiteko. Egia da pixkanaka aldatu zirela kontsumitzaileek ordaindutako azken preziora; hala ere, aztertu dugun bezala, marjinek ere gora egin dute. Ondorioz, erregaien eta produktu energetikoen prezioan esku hartu behar da, gasaren prezioen kontrolarekin egin zen bezala.

5. Energia-enpresei eta bankuei gehiegizko mozkinengatiko zerga bat ezartzea

Inflazioa handia den eta bizitza garestitzen ari den testuinguru batean, enpresa asko aparteko irabaziak lortzen ari dira, herritarren gehiengoak pobretzearen kontura. Beraz, bidezkoa da aparteko onura horiengatik gehiago ordaintzea.

Horregatik, ELAk gehiegizko mozkin horien gaineko zerga bat ezartzea proposatzen du, enpresek krisiaren aurreko urteetan lortutako batez besteko mozkin-tasa erreferentziazat hartuta eta maila hori nabarmen gainditzen duen zatia zergapetuta. Batez besteko hori % 25ean gainditzen duen zatia aparteko onuratzat hartuko litzateke, eta tributazio gehigarria ordaindu beharko luke.

6. Supermerkatuei gehiegizko mozkinengatiko zerga ezartzea

Prezioen igoera gainerako sektoreetara zabaltzen bada, gerta daiteke enpresek azken salmenta-prezioak kostuen garestitzearen gainetik igotzeko aprobeztatzea, aurreko 2022ko inflazio-testuinguruan gertatu zen bezala.

Etorkizunean antzeko prezioak ez igotzeko, ELAk ezohiko mozkin horien gaineko zerga bat ezartzea proposatzen du, egungo mozkin garbiaren tasa erreferentziazat hartuta eta batez besteko hori % 25ean gainditzen duen zatia zergapetuta.

7. PFEZaren deflaktazioa

Laneko errenten balioa KPlaren azpitik handitzen ari da, eta horrek erosteko ahalmena murriztea eragiten du. Baina, gainera, soldata-balio handitze horiek zerga-tasen eskalan jauzi bat eragiten dute, eta, horren ondorioz, langileentzako zergak handitzen dira. Hau da, erosteko ahalmena galtzen da eta, gainera, zerga gehiago ordaintzen dira. Errentaren murrizketa bikoitz hori saihesteko, irtenbide bat da tarteak inflaziora egokitzea, eta horri deflaktazioa esaten zaio.

Illo horretan, proposatzen dugu PFEZk deflaktazio-mekanismo automatiko bat izatea KPlren araberako, urtero prezioen aldaketa kontuan hartzea, bereziki tarterik baxuenetan eraginez

8. Etxebizitzaren arloko neurriak

Etxegabetzeak modu mugagabea debekatu behar dira, bai jabetzako etxebizitzetan, bai alokairukoetan. Gainera, alokairuen prezioak mugatu behar dira eta etxebizitzaren espekulazio-merkatuan esku hartu.

EAEko eta Nafarroako legeetan aitortutako etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatu behar da. Gainera, etxebizitzarekin lotutako oinarritzko hornidurei aurre egiteko laguntzak ezarri behar dira (elektrizitatea, energia, ura, internet...).

9. Gizarte-prestazioak (DSBE, Errenta Bermatua, GLL) indartzea zailtasun handienak dituzten pertsonentzat

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak prestazio sozialak indartzeko aukera dute, zailtasun handienak dituzten pertsonen bizitza duina izan dezaten bermatzeko. Oinarritzko produktuen eta etxebizitzaren prezioek gora egin dutenez, beharrezkoa da prestazioak indartzea, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak EAEn, eta Errenta Bermatua Nafarroan.

Dauden prestazioez gain, errenta baxuenak dituzten eta prestazio horiek jasotzeko eskubiderik ez duten familiak babestu behar dituzte, biziaren garestitzeari aurre egiteko laguntza zuzenen bidez.

10. Garraio publikoaren prezioak merketu

HEHko erakunde publikoek eskumenak dituzte garraio publikoaren prezioa murrizteko, eta, beraz, deskontuak aplikatu behar zaizkio garraioaren prezioari, familien bizi-kostua murrizteko.



www.ela.eus

ELA
EUSKAL SINDIKATUA